

Laguntzen zenbatekoak eta ehunekoak.

4. artikulua n idatz- zatiekiko baliokidetas una	Kontzeptuaren deskribapen laburra	ESKUALDEKO ESKUALDEZ EREMUA		ETA GAINDIKO		TOKI EREMUA	
		laguntzare n gehieneko ehunekoa, onartutako zenbatekoa ri aplikatua	Laguntzaren gehieneko muga (eurotan)	laguntzar en gehienek o ehuneko a, onartuta ko zenbatek oari aplikatua	Laguntza ren gehienek o muga (eurotan)		
(1) (2) (3)				(1) (2) (3) (4)			
1.-	TURISMO KUDEAKETARAKO ERAKUNDEAK ETA EGITURAK SORTZEA ETA MANTENTZEA						
b.1	Aurretiko azterlana	% 50	18.000	--	--		
b..2	Eraketa-gastuak.	% 40	12.000	--	--		
b.3	Funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuak	% 15	3.000	--	--		
b.4	Langile kualifikatuengatikoko gastuak			--	--		
	Turismo-lankidetzarako erakundeetako langile kualifikatuengatikoko gastuak	% 50	21.000				
	Erakunde eta egitura berrietako langileengatikoko gastuak (zuzeneko kontratazioa)	% 50	21.000				
	Erakunde eta egitura berrietako langileengatikoko gastuak (laguntza teknikoak)	% 50	18.000				
b.5	Ekipamendu informatikoa erostea eta laguntza teknikoak kontratatzea	% 50	12.000				
2.-	HELMUGEN TURISMO KALITATEAREN SISTEMA INTEGRALA TXERTATZEA.						
	Langile teknikari kualifikatuengatikoko gastuak:						
	Erakunde eskatzaileko langileak	% 50	18.000	% 50	18.000		
	Helburu espezifikoko horretarako zuzeneko kontratazioa	% 50	18.000	% 50	18.000		
	Kanpoko laguntza teknikoak	% 50	15.000	% 50	15.000		
3.-	PRODUKTUEN ETA HELMUGAREN TURISMO DINAMIZAZIORAKO PLANAK LANTZEA ETA GARATZEA						
b.1	PTDP bat lantzeko laguntza teknikoa	% 70	18.000	% 50	12.000		
b.1	PTDP bat eguneratzeko laguntza teknikoak	% 50	15.000	% 50	9.000		
b.2	Eskualdeko eta EAEko hiru hiriburueterako HTDPak berrezartzeko laguntza teknikoa.	% 50	15.000				
b.3	HTDPetan eta PTDPetan zehaztutako produktu eta proiektuei buruzko azterlan espezifikoak.	% 50	15.000	% 50	9.000		
c	HTDPetan eta HTDPetan zehaztu eta onetsitako eta/edo Basquetour-ekin adostutako jardunak.	% 50	150.000	% 50	100.000		

Laguntza-zenbatekoa jaso ahal izateko, diru-laguntzaren ehunekoa onartutako zenbatekoari aplikatuko zaio, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Koadroaren 1. idatz-zatian adierazitako "funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuen" kasuan, koadroan jasotako diru-laguntzaren ehunekoa 4.1 artikuluan onartutako gainerako gastuen guztizko baturari aplikatuz kalkulatu da diru-laguntzaren ehunekoa.
- b) Erakunde onuradunaren berezko langileek emandako denboraren egozpenaren kasuan (koadroaren 2. idatz-zatian adierazten da hori), adierazitako jardueran sartutako denboraren kostuaren zenbatzeari aplikatuko zaio diru-laguntzaren ehunekoa.
- c) Laguntza tekniko bidezko kontratazioa izan ez duten langileengatiko gastuen kasuan, soldata gordinari aplikatuko zaio diru-laguntzaren ehunekoa.
- d) EAEko hiru hiriburuen turismo-garapenaren ardura duten erakundeek -4.3.b artikuluan zerrendatutakoak- proiektuek eskualdeko proiektuen tratamendu berbera izango dute, diru-laguntzaren ehunekoei eta diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoari dagokienez.

2.- Tokiko edota tokiz gaindiko proiektuek, betiere Ebaluazio Batzordearen balioespenaren arabera, dagokien eragin-eremuan turismo-garapenerako estrategikotzat hartzeko baldintzak betetzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-erreferente bihurtzeko gaitasuna badute, "lehentasunezko turismo-intereseko proiektutzat" hartuko dira, eta beraz, proiektu horien ondoriozko jardunak, HTDPetan eta PTDPetan zehaztu eta onartutako jardueri dagozkienak, eta/edo Basquetour erakundearekin adostutakoak, eskualdeko edota eskualdez gaindiko jardunen tratamendu berbera izango dute, gehieneko diru-laguntzei dagokienez. "Lehentasunezko turismo-intereseko proiektutzat" hartzeko, proiektu horien izaera berezia hartuko da kontuan, hots, paregabekoak izan beharko dute edo eremu geografiko berdineko edo izaera berdineko beste produktuekin alderatuta oso desberdinak izan beharko dute, gure Autonomia Erkidegoan erabiltzen ez diren edo kaltetuta dauden zenbait toki turistiko suspertzeko gai.

3.- Erakunde onuradun bakoitzak deialdi bakoitzeko eta Agindu honetan ezarritako kontzeptu guztiengatik jaso dezakeen gehieneko diru-laguntza honako hau izango da, jardun-eremuaren arabera:

- a) 120.000 euro tokiko erakundeetarako, EAEko hiru hiriburuei dagozkien kasuan izan ezik, horietarako gehieneko diru-laguntza 150.000 eurokoa izango baita. Aurrekoa gorabehera, Ebaluazio Batzordeak tokiko erakunde bat "lehentasunezko turismo-intereseko proiektutzat" hartzen badu, tokiko erakunde horietarako gehieneko diru-laguntza 180.000 eurokoa izan daiteke.
- b) 180.000 euro, erakunde onuradunen jardun-eremua eskualdekoa edota eskualdez gaindikoa den kasuetan.